

Iruñean, Nafarroako Museo aretoan, 1982.eko Urtarrilaren 29an ospatu du arratsaldeko lauetan Euskaltzaindiak hileroko bere batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzain jaunak. L. Akesolo, J. Apecechea, J. A. Arana, J. M. Azpiroz, J. Basterretxea, P. Charritton, P. Diez de Ulzurrun, M. Garde, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agirian X. Diharce jaunaren izena falta dela esaten duen oharra jaso da. Hain zuzen, arratsaldeko batzarrerera etortzerik izan ez bazuen ere, goizeko eta bezperako euskaltzain osoen bileretan egon zen.

Eta besterik gabe onartu da agiria.

Euskaltzainburuak N. Etxaniz ohorezko euskaltzainaren hil berria jakinerazi du. Bezperan, bildu ondoan jakin genuenez berria, beste batzar batean egingen da goratarrezko aipamena. Goian bego.

L. Villasante Oviedon izan da, J. San Martin bidelagun duela, Asturiasko Hizkuntz Akademiaren ohorezko izendamina jasotzen. Oso harrera ona izan dute eta bertan bildutako guzietan ezagupen baliagarriak egin ere.

Pertsona Izendegiari buruz egindako txostenaren ondotik oharrak bidaltzeko eman zen bi hilabeteko epea gaur bete da. Lau euskaltzainen izkribuak jaso dira. Datorren batzarrean emango da horien berri.

Eusko Jaurtaritzako Hezkuntz Kontseilari jaunak egindako eskari bati erantzunez, Euskararen Aholku-batzorderako partaide Euskaltzaindiaren izenean J. Haritschelhar, buruordea, proposatzen da.

A. Zubikaray eta beste zenbait legunek izenpeturiko gutuna jaso da, bizkaiera-  
ren egoera txarra dela eta kezka larria eskari batzukin agertuz. Aztertu ondoan erantzungo zaie.

**Batzordeen berri**

1. EUSKERA. R. Badiolak adierazi duenez, 1982.urteko lehen alea, bildumako XXVII. alea, inprimatzeko prest dago. Lan guzien banaketa egin da.
2. LEKUKOAK. Txomin Peillen jaunak, Josef Egiategi xuberotarraren *Filosofo Hüskaldünaren Ekheia* izeneko liburua gertatu du bilduma honetarako. Lino Akesolok, beste alde, Gasteluçarren "*Eguia Catholicac*" izenekoa dakar.
3. OINARRIZKO EUSKARA. Imanol Berriatuak utzitako hutsunea bete beharra zegoen eta Euskaltzaindiak, eritzi guziak entzunik, bidean diren lanak burutzen joateko babesa ematen dio batzordeari. J. San Martin jaunak eman du goizeko bilkuran esandakoen berri.

**Txostenak**

Euskaltzaindiak dituen eginkizunen sailkapenaz mintzatu da J. M. Satrustegi idazkaria. Zenbait batzorde desagerturik, Dialektologia, Gramatika eta Hiztegiak izango dira, besteak beste, ekintza nagusiak. Liburu Gordailua ere garrantzi handiko ekintza gertatu da eta langile bat horretaz arduratuko da. Azkue Bibliotekan ere bada lan.

F. Ondarra euskaltzainak Garesko euskararen bereiztasun zenbait aipatu ditu bere txostenean eta elkarriketa bizia sortu du entzunleen artean.

J. M. Azpiroz euskaltzain urgazleak euskal hiztegiaren gehigarriak jaso ditu Nafarroan, eta hirugarren atala aurkeztu du gaur, Leitza eta Lesakan bildutakoekin.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Fr. Luis Villasante

*Idazkaria*  
Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi